

EGURRA

INSTALAZIOA

PARTEHARTZAILEAK

IDEIA ETA ZAUZENDARITZA Inge Mendioroz
ZUZENEKO SOINUA Pablo Bueno
AKTORE LANETAN Candido Uranga eta Clara Badiola

SOINU INGENIARIA Jaime de los Rios
SOINU NAHASKETA Estaniz Elorza eta Jon Bidaur
MAKING OF Haritz Arrizabalaga



EGURRA

Instalazioa.

Indarkeria matxistaren inguruko instalazioa da. Gaiaren inguruko hainbat aurreiritzi ezbaian jartzeko proposamena. Eta gaiaz hausnartzeko gonbitea ere.

Arazo honen aurrean jendarteak sentitu dezake beste norbaiten arazoa dela. Gai honetaz ari garenean gizon eta emakume batetaz aritzen gara, batzuetan konkretuki gainera, neska gaztetaz, gizon tipo batetaz... nik fokoa tokiz aldatu nahi izan dut. Kasu honetan, 'ingurua' deitzen zaion horretan jarriaz, alegia, guztiok. Datorren guztia izango da interpelatua.

Instalazio honetan inbasio akustiko baten bidez, arazo hori gure etxean sartu da. Gaineko etxebizitzan indarkeria ematen ari dela entzungo dugu. Orain arazoa gurea ere bada. Parte gara eta aukeratu beharko dugu gure parte-hartzea aktiboa izango den ala gure pasibotasunaz erasotzailea babestuko dugun. Parte hartuko dut ala ez? Instalazioak dilema horretantxe kokatuko ditu ikusle-entzuleak, indarkeria matxistak egiten duen bezala.

Instalazioan dagoen objektu bakarra; telefonoa da parte-hartzea bideratzeko tresna da. Baina, museo batean egiteak beste baliabide bat ematen du, parte-hartzea ez baita askotan posible izaten. Gure lehen bulkada telefonoa hartzea izan arren, ezinegonak eta zalantzak egon daitezke: Ukitu daiteke? Parte-hartu daiteke?

Blokeo hau, errealitatean eman daiteke kontu ezberdinengatik. Hala, beste aurreiritzi bat zalantzan jarriko dugu: nik ez bairik gabe zeozer egingo nuke indarkeria matxistaren aurrean.


INSTALAZIOA

4 bozgainu eta subwoofer bat. Hauek portatil batera lotuak. Telefonoa ere portatilerara lotua dago. Portatilak 'Egurra' proiekturako diseñatu den software berezi bat dauka. Honek telefonoa hartzerakoan, norbaitek hartzen badu, audioa (loop batean jarrita dagoena) eten egingo du, eta 2 minutuko isilune batean mantenduko du berriz hasieratik jarri bitartean.

MEDIAZIO ARTISTIKOA

Artea tresna transformatzaile soziala bihurtzen da. Taldeei zuzenduta egoten dena eta komunitatea eta inklusioa lantzeko balio izaten du.

Instalazioak indarkeria matxistaren gaia alde askotatik begiratzeko aitzakia emango digu. Talde lanean arituko gara, guztion iritzia kontuan hartuaz, era horizontal eta errespetuz eginik. Gaiaren inguruan hausnartzeko saioak.



ENERGIÁ-OLATUAK / OLAS DE ENERGÍA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
DSS2016.EU